



2012/08/3ko prentsa-oharra

ESKAINZA IMMOBILIARIOARI BURUZKO ESTADISTIKA 2012ko 2. hiruhilekoa

2011ko bigarren hiruhilekotik 2012ko bigarrenera, Euskal AEan etxebizitza erabiliaren metro koadroaren prezioa eta etxebizitza libre berriarena % 2,4 jaitsi dira.

Higiezin agentziek 10 hilabete behar dute batez beste etxebizitza bat saltzeko.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako 2012ko bigarren hiruhilekoko etxebizitzaren eskaintza estatistikaren arabera, erabilitako etxebizitzaren metro koadro erabilgarriaren batez besteko prezioa 3.771 eurokoa da; %1,7 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko eta %2,4 iaizko hiruhileko berarekiko. Antzeko zerbait gertatzen da etxebizitza libre berrien salneurrian, 3.735 euro metro koadroa, %0,8 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko eta % 2,4 iaizko hiruhileko berarekin alderatuta.

Gipuzkoan, agentziek salgai eskainitako erabilitako etxebizitzaren metro koadroaren prezioa % 2,4 jaitsi da azken hiruhilekoan, eta 2011ko bigarren hiruhilekoarekiko alderatuz gero, % 7,7. Halaber, Araban % 2,2 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 6,2 2011ko bigarren hiruhilekoarekiko. Bizkaian, % 0,6 murriztu da prezioa aurreko hiruhilekoarekiko; baina, azken 12 hilabeteotan, guztira, % 1,8 igo da.

Vitoria-Gasteizen erabilitako etxebizitzaren metro koadroaren prezioa % 2,2 jaitsi da azken hiruhilekoan eta % 6 azkeneko urtean; era berean, Donostian prezioa % 1 eta % 0,8 murriztu da azken hiruhilekoan eta azken urtean, hurrenez hurren. Bilbon, ostera, igo egin dira eskaintza-prezioak: % 0,7 azken hiruhilekoan eta % 5,2 azken hamabi hilabeteotako bilakaera kontuan izanik.

Bitartekari lanak egiten dituzten higiezin agentziek adierazten dute saltzaileek % 14,6 inguru jaitsi behar izaten dutela erabilitako etxebizitzaren prezioa, salmenta gauzatu ahal izateko. Horrek esan nahi du % 1,2 gehitu dela azken hiru hilabeteetan erregistratutakoarekiko, eta aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, % 2,2.



Etxebizitza berri librearen metro koadroaren eskaintza-prezioa 3.735 euroren bueltan dabil, % 0,8 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko; eta urtebeteko epean % 2,4ko jaitsiera metatua izan du.


Etxebizitza libre berrien metro koadroaren eskaintza-prezioa jaitsi egin da Gipuzkoan; bai aurreko hiruhilekoarekiko, % 1,9, bai iazko bigarren hiruhilekoarekiko, % 5,1. Araban metro koadroaren prezioak % 0,5 egin du behera azken hiru hilabeteetan, eta % 2,1ko jaitsiera metatua izan du azken urtebetean. Bizkaian aurreko hiruhilekoarekiko eta 2011ko bigarren hiruhilekoarekiko beherakada % 0,4koa eta % 1,1ekoa da, hurrenez hurren.

Etxebizitza librearen metro koadroaren prezioa % 1,7 murriztu da Bilbon azken hiruhilekoan.

Gauza bera gertatu da Vitoria-Gasteizen, %0,8, eta Donostian, % 0,2. Azken hamabi hilabeteetan etxebizitza librearen metro koadroaren eskaintza-prezioak % 7,4 egin du behera Bilbon, eta % 3,3 Vitoria-Gasteizen. Donostian, aldiz, % 2,4 egin du gora.

Sustatzaile eta higiezin agentziek etxebizitza librearen prezioa 9.400 euro jaitsi dute azken hamabi hilabeteetan, hots, % 3.

Etxebizitzen m² erabilgarriaren arabera batez besteko prezioaren bilakaera etxebizitza motaren arabera eta hiruhileko bakoitzeko. 1996-2012. Euskadiko AE. Euroak.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxebizitzen eskaintzari buruzko estatistika

EREDUZKO ETXEBIZITZA: Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskaintakoa, akabera-maila "arunta" duena eta 60 eta 90 m² arteko azalera duena.

Sustatzaile eta higiezin agentziek etxebizitza libre berriei jarritako batez besteko eskaintza-prezioa 304.600 euro izan da. 2012ko bigarren hiruhilekoan, % 0,9 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 3 aurreko hamabi hilabeteekin alderatuz gero.



Bigarren eskuko etxebizitzaren batez besteko prezioa 334.200 euro da; etxebizitza libre berriak baino 29.600 euro gehiago balio du, hots, azken hiruhilekoan baino % 1,5, 5.000 euro, gutxiago eta % 0,5, 1.700 euro, azken 12 hilabeteetan.

Arabako etxebizitza libre berriaren eskaintza-prezioak % 1,5 jaitsi dira azken hiruhilekoan, eta % 5,9, azkeneko urtean. Etxebizitza erabiliaren prezioa, berriz, batez beste % 2,8 jaitsi da, azken hiru hilabeteetan; eta % 6,3, azken urtean. Lurralde horretako etxebizitza librearen batez besteko prezioa 273.600 eurokoa da, eta erabiliarena, 254.700.

Bizkaian bigarren hiruhilekoan 305.200 euroan eskaini da etxebizitza librea. Aurreko hiruhilekoan erregistraturiko prezioa % 0,5 jaitsi da, eta 2011ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuz gero, % 1,5 jaitsi da. Erabilitakoen prezioa jaitsi egin da, % 0,6, aurreko hiruhilekoarekin alderatuz; baina aurreko urtearekiko % 2,5eko igoera izan du. Lurralde horretako etxebizitza erabiliaren egungo batez besteko prezioa 344.00 euro inguru da.

Gipuzkoak, berriz, eutsi egin die etxebizitzaren prezio garestienei; etxebizitza libre berriak 318.600 euro balio du, eta bigarren eskukoak, 371.100 euro. Lehenengo etxebizitza motaren prezioa % 1,4 jaitsi da azken hiru hilabeteetan, eta bigarrenarena, % 1,5. Azken hamabi hilabeteetan, etxebizitza libre berrien prezioa % 4 jaitsi da, batez beste, eta bigarren eskukoak, % 4,6.

Azken hamabi hilabeteetan, etxebizitza berri librearen eskaintza-prezioa 34.000 euro jaitsi zen Bilbon; 23.100 euro, Gasteizen; eta 6.600 euro Donostian.

Azken hamabi hilabeteetan higiezin agentziek eta sustatzaileek % 8,4 jaitsi dute Bilboko etxebizitza libre berriaren prezioa; Gasteizen, % 7,6 jaitsi dute; eta Donostian, % 1,6.

Azken hiruhilekoarekin alderatuta, etxebizitza horien salmenta-prezioa % 1,9 jaitsi da Bilbon eta % 1,3 Vitoria-Gasteizen. Donostian berriz, % 0,4 igo da. Batez besteko prezioa 410.500 euro da Donostian, 368.700 euro Bilbon, eta, baxuena, 283.000 euro, Vitoria-Gasteizen.

Bestetik, erabilitako etxebizitzaren prezioa ere jaitsi egin da azken hiruhilekoan: 257.800 euro, eta % 2,8 gutxiago Vitoria-Gasteizen; 390.400 euro, eta % 1,2 gutxiago Bilbon. 2011ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, Vitoria-Gasteizen batez besteko prezioa % 6,2 jaitsi da, eta Bilbon % 0,9. Donostian, ordea, prezioek % 0,2 egin dute gora azken hiruhilekoan, eta azken urtean, % 5,1; eta hiruhileko honetan 537.200 eurora iritsi da.

Alokatzeko etxebizitza libreen batez besteko errenta 883 eurotan dago, eta babestutakoena – BOEak eta etxebizitza sozialak –, 333 eurotan.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Etxebizitza librearen kasuan aurreko hiruhilekoarekiko aldaketa negatiboa izan da, % 1,3 gutxiago; eta iazko lehenengoko hiruhilekoarekin alderatuta % 3ko jaitsiera. Babestutako etxebizitzaren batez besteko alokairua % 8,3 igo da azken hiruhilekoan, eta % 44,2, azken urtean.

Sektore babestua – BOEak eta etxebizitza sozialak – 113.200 euroko batez besteko prezioan ari dira saltzen etxebizitzak –1.545 euro metro koadro erabilgarri bakoitzeko –. Etxebizitza horien metro koadroaren batez besteko prezioak % 0,6 egin du gora azken hiruhilekoan, eta 2011ko hiruhileko berarekin alderatuta, % 3.

Higiezin agentziek 10 hilabete behar dute batez beste etxebizitza bat saltzeko; duela urtebete baino hilabete bat gehiago.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

HIGIEZINEN ESKAINTZARI BURUZKO INKESTA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN		2012ko 2. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldaketa		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldaketa	
ERABILGARRIAREN BATEZ BESTEKO PREZIOA		Euroak		Euroak	Ald %	Euroak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE berria/Etxeb. soziala	1.544,9		9,5	0,6	45,1	3,0
	Berri librea	3.734,6		-29,9	-0,8	-93,4	-2,4
	Erabilia	3.771,0		-66,2	-1,7	-92,9	-2,4
Araba	Berri librea	3.421,1		-15,8	-0,5	-71,8	-2,1
	Erabilia	3.104,2		-69,9	-2,2	-203,8	-6,2
Bizkaia	Berri librea	3.807,0		-13,8	-0,4	-42,9	-1,1
	Erabilia	3.796,0		-24,3	-0,6	66,7	1,8
Gipuzkoa	Berri librea	3.753,9		-73,0	-1,9	-201,6	-5,1
	Erabilia	4.209,3		-103,4	-2,4	-351,7	-7,7
Euskal Autonomia Erkidegoa	(1) EREDUZKO ETXEBIZITZA	3.379,1		-45,9	-1,3	-96,2	-2,8
Berria librea	Gasteiz	3.617,0		-27,4	-0,8	-121,9	-3,3
	Bilbo	4.589,7		-77,7	-1,7	-367,3	-7,4
	Donostia	4.813,6		-7,7	-0,2	113,1	2,4
Erabilia	Gasteiz	3.143,2		-69,4	-2,2	-200,9	-6,0
	Bilbo	4.368,6		32,2	0,7	215,0	5,2
	Donostia	5.616,7		-53,9	-1,0	-42,6	-0,8
ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO PREZIOA		Milaka Euro		Milaka Euro	Ald %	Milaka Euro	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE berria/ Etxeb. soziala	113,2		0,6	0,6	4,0	3,7
	Berria librea	304,6		-2,8	-0,9	-9,4	-3,0
	Erabilia	334,2		-5,0	-1,5	-1,7	-0,5
Araba	Berria librea	273,6		-4,2	-1,5	-17,2	-5,9
	Erabilia	254,7		-7,4	-2,8	-17,2	-6,3
Bizkaia	Berria librea	305,2		-1,4	-0,5	-4,6	-1,5
	Erabilia	344,0		-2,1	-0,6	8,4	2,5
Gipuzkoa	Berria librea	318,6		-4,6	-1,4	-13,4	-4,0
	Erabilia	371,1		-5,7	-1,5	-18,0	-4,6
ETXEBIZITZA ESKAINTZA		Unitateak	%	Unitateak	Ald %	Unitateak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	Gutzizkoa	41.558	100,0	-1.790	-4,1	4.593	12,4
	BOE berria/Etxeb. soziala	5.367	17,8	-845	-13,6	-208	-3,7
	Berria librea	5.631	19,4	7	0,1	720	14,7
	Erabilia	28.192	51,2	-1.017	-3,5	4.180	17,4
	Soziala/Librearen Alokairua	2.369	11,5	66	2,8	-99	-4,0
ALOKAIRU ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO ERRENTA		Euroak		Euroak	Ald %	Euroak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE / Soziala	333,1		25,7	8,3	102,1	44,2
	Librea	883,4		-11,7	-1,3	-27,7	-3,0
ETXEBIZITZA BAT SALTZEKO BEHAR DIREN BATEZ BESTEKO HILABETEA		10,0		0,3	2,9	1,2	13,3
AZKEN PREZIOAREN MURRIZKETAREN BATEZ BESTEKO EHUNEKOA. ETXEBIZITZA ERABILIAK		%		Aldea portzentajezko puntutan	Ald %	Aldea portzentajezko o puntutan	Ald %
EAE		14,6		1,2	9,2	2,2	18,0
Araba		5,5		1,0	23,7	1,2	26,8
Bizkaia		15,0		-0,3	-2,0	1,4	9,9
Gipuzkoa		15,5		2,3	17,5	3,0	23,6

(1) Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskainitakoa, akabera-maila "arrunta" duena eta 60 eta 90 m² arteko azalera duena.

Ohar metodologikoa

2012ko bigarrenengo hiruhilekoko datuak 171 higiezin-agentzirik eta 5 etxebizitza baino gehiagoko sustapenak zituzten 156 sustatzailek osatutako lagin bati hiruhilekoaren amaieran egindako elkarrizketetatik atera dira. 2011n igo egin da informazioa ematen duten agentzien kopurua. Nolanahi ere, ez dira salmenta-prezioak, eskainitako prezioak baizik.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Prezioak, eskaintza eta alokairuak kalkulatzeko, laugarren mailako batez besteko mugikorrek ateratzen dira, ausazko aldaketak gutxiagotzeko

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia

Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.: +34-945-01 97 12 Fax.: +34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.

WEBGUNEA: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.